

## GIL 15 Ereñoko Kanteragorria



Matrize mikritiko gorri batean bildutako errudista polikonitidoen multzo baten zehar-ebakia.

### Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 21' 35,60 '' N

Long.: 2° 38' 44,34'' W

- **UTM koordenatuak:**

X: 529.659,29 m

Y: 4.800.839,60 m



### Nola iritsi

Urdaibain, Arteagan, Bi-2238 errepidea hartu behar da Lekeitio-Ereñoko norabidean; Muruetaganeko bidegurutze edo biribilgunea pasatu ondoren, eskuinera egin behar da hirugarren bihurgunean. Atxoste auzora iritsi baino lehen, harrobi-ebaki handi baten ondoren, bada seinalaztatu gabeko bide bat; handik joanda, ustiategi zaharraren plazara sar daiteke.

### GILaren deskribapen laburra

Ereñoko Urgondarreko kareharri gorriak, "Ereño gorri" edo "Bilbo gorri" izenez ezaguna, K.o. I. mendetik, erromatar garaitik, 1980ko hamarkadara bitarte ustiatu dira apaindura-arroka gisa. Arroka horren edertasun berdingabeak mugak gainditu ditu; hala, Bizkaian askotan erabili izan da, baina ez da harritzekoa Espainia osoan eta atzerrian ere aurkitzea.



Atzarragako harrobi abandonatuaren ebakia, BI-2238 errepidetik ikusia. Errudista-bioeraikuntzen azalaramendu bikainak ditu, eta, meataritzaren ikuspegitik, badira erauzteek sortutako paisaia antropiko oso interesgarriak ere.


Urgondarreko konplexuko GIL bereizgarri honek fosilen ugaritasunari zor dio interes nagusia. Fosil horiek bibalbioak dira batez ere, eta hauek nabarmentzen dira bereziki: zenbait errudista familia (polikonitidoak, errekieidoak eta monopleuridoak), *Chondrodonta* sp.-en maskorrak eta ingurune subtropikaleko sakonera txikiko uretako plataforma karbonatatuetakoa ohiko beste fosil batzuk. Maskorren zuritasuna nabarmendu egiten da kolore gorri biziko matrize mikritikoan (hematite motako burdin oxidoen inpregnazioak dira kolore gorriaren sortzaile); kontraste horrek ematen dio arrokari apaindura-arroka gisa duen balioa.

Geruzapen ia bertikala duten azalaramendu ikusgarrietan, errudista-kolonizazioen segidak ikus daitezke, baita zenbait asoziazio paleoekologiko ere, segur aski ekaitz edo zikloi handiren batekin erlazionatuak dauden gertaera energetikoen etenak (2. irudia).


Toki horrek GIL gisa duen garrantzia ondare-historia berriagoak osatzen du, non azpimarratzekoa baita han gorde den meataritza-ondarea. Gautegiz-Arteagan, Atzarragako harrobi edo Kanteragorri handian, plaza handi bat dago, pareta eta erliebe bertikalak dituen eta Bizkaiko ondare historikoaren parte dena (3. irudia).

## Behatzeko punturik onena

Inguru hartako zenbait harrobi abandonatu. *In situ*.



A: Botozko hileta-aldarea, K.o. I. mendearen bukaerakoa edo II. mendekoa, Foruko erromatar aztarnategikoa. B: Lucas Alcalde meatzariaren omenez (Ortuella).



Geruza bertikalen segida, luzetarako ebakian polikonitidoen 5 kolonizazio-segida ere ikusteko aukera ematen duena.



## Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 62, GIL 97.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 14, GIL 16, GIL 17, GIL 18, GIL 19..

## GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
<b>Interes zientifikoa</b>	Geomorfologikoa				
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala		●		
	Estratigrafikoa				●
	Paleontologikoa				●
	Petrologikoa		●		
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
<b>Interes ekonomikoa (erauzketa)</b>			Iraganean ●	Potentziala	Martxan
<b>Interes kulturala:</b> Balio handiko apaindura-arroka bat da, eraikin askotan erabili dena, baita Italian eta AEBn ere.					
<b>Oharrak:</b>					

## Bibliografia espezifikoa

- Damas-Mollá, L.; Aranburu-Artano, A. eta García-Garmilla, F.(2004): “*Catodoluminiscencia y estratigrafía de cementos en conchas de rudistas (Hippuritacea, Bivalvia) del Cretácico Medio de Ereño (Bizkaia, País Vasco)*”. Geogaceta, 36. liburukia, 159-162 (2004). Madril
- Damas-Mollá, L.; Aranburu-Artano, A. eta García-Garmilla, F.(2004): “*Alteración diagenética diferencial en conchas de rudistas (Hippuritacea, Bivalvia) del Cretácico Medio de Ereño (Bizkaia, País Vasco)*”. Geogaceta, 36. liburukia, 163-166 (2004). Madril
- Damas-Mollá, L.; Aranburu-Artano, A. eta García-Garmilla, F.(2006): “*Resistencia a la Alteración diagenética de conchas de Chondrodonta sp. en las calizas rojas del Aptiense-Albiense Inferior de Ereño (Bizkaia)*”. Geogaceta, 40. liburukia, 195-198 (2006). Madril.
- L. Damas- Mollá, M<sup>a</sup> Cruz Zuluaga, A. Aranburu eta P. García-Garmilla (2008): “*Mineralogía del “Rojo Ereño” de Vizcaya*”. Macla, 9, 77-78 (2008), ISBN: 1885-7264, Lege-gordailua: M-38920-2004
- Damas-Mollá, L.; Aranburu-Artano, A. eta García-Garmilla, F.(2008): “*Evaluación de los efectos diagenéticos en la relación 87Sr/86Sr en conchas de rudistas y Chondrodonta sp. de las calizas rojas del Aptiense – Albiense inferior de Ereño (Bizkaia)*”. Geogaceta, 44. liburukia, 103-106 (2008). Madril.
- Damas-Mollá, L.; Aranburu-Artano, A. eta García-Garmilla, F.(2008): “*Microestructuras en conchas de rudistas y Chondrodonta sp. del Complejo Urgoniano de Ereño (Bizkaia)*”. Geogaceta, 44. liburukia, 107-110 (2008). Madril
- Damas-Mollá, L.; Aranburu-Artano, A. eta García-Garmilla, F. (2010): “*Paleoclima y Diagénesis de las calizas rojas de Ereño (Aptiense superior-Albiense inferior, Bizkaia)*”. Geogaceta, 47. liburukia, 107-110 (2009). Madril.
- Damas Mollá, L. (2011): *Las calizas rojas de Ereño: Facies, paleoambiente, mineralización y diagénesis. Patrimonio geológico – histórico de Bizkaia*. PhD, EHU/UPV Euskal Herriko Unibertsitatea.
- <http://www.eve.es/publicaciones/cartografia/Mapas/38-IV.pdf>
- [http://www.bizkaia.net/kultura/ondarea\\_bizkaia/pdf/ondare/140%20c.pdf](http://www.bizkaia.net/kultura/ondarea_bizkaia/pdf/ondare/140%20c.pdf)